

Hormetan leiho

Gianni Rodarik, *Fantasiaren gramatika* liburuan, kontatzen du Lenin eta haren senideak lorategi aldeko leihoetatik sartzen zirela etxera, eta, aitonak, debekurik ez jartzeaz gainera, aulkitxoak ipini zizkiela leihoetatik arriskurik gabe sar zitezen. “Istorioen bidez –eta horiek sortzen dituzten prozedura fantastikoen bidez–, haurrei errealitatera atetik ez, baina leihotik sartzen laguntzen diegu. Dibertigarriagoa da eta, beraz, baligarriagoa”.


Ikasturtea amaitzeaz dagoen honetan, irudipena dut idazleok ere leihotik sartzen garela ikastetxeetako geletara. Ikasturtean zehar, izan Euskal Idazle Elkartearen bitartez erkidegokan, izan FIRA elkartearen edo Nafarroako Gobernuaren bitartez erresuman –oso pozgarria izaten da eskolak beraien zuzenean deitzea–, idazleok aurten ere titiriteroen pare ibili gara hara eta hona: noizhasizine-nidazten nondikateratzen dituz uideiak zenbat kobratzen duzunoiz baituztikodiozuidazteari..?

Haurrek lilura begietan hartzen gaituzte, saioa amaitutakoan liburuak sinatu eta sinatu ibiltzen gara, eta orduan ohartzen gara, oro har, irakasleak egiten ari diren lan isil eskergaz. Orduan gurasoekin ere gogoratzen gara, seme-alabengan piztu behar duten motibazioarekin, etxean egin behar duten lanarekin –a zer nolako ezintasuna sentitu behar duten haurrak euskaraz matrikulatu eta etxeko lanetan ezertan ere laguntzerik ez duten guraso erdaldunek: askok ez dute meritu makala!–. Orduan gogaitzen gara beste urte bat igaro delako Ipar Euskal Herri-ra joan gabe, eta gogoan dugu –haurrak beti haur– nola aitzakiatu ziguten behinola: “Ez dut ulertzen, liburu hau hegoaldekoa da”, esaterako gasolinari “esantza” esaten ziotelako edo bonbillari “anpula”. Beste neskatila bat ere ezin oroitut gabe utzi: “Nik nahiago dut, liburu bat irakurri baino, hitzez hitz kopiatu, baina telebistaren aurrean...”.



ZALDI ERO

A zer nolako ezintasuna sentitu behar duten haurrak euskaraz matrikulatu eta etxeko lanetan ezertan ere laguntzerik ez duten guraso erdaldunek: askok ez dute meritu makala!



Ororen buru ondorioztatzen ahal dugu kultura ere leihotik sartu behar dela, aitzakiak porrokatu, elkar adoretu, euskara gramatikatik urrundu...; eta ezinbestekoa dela, dauden baliabideetatik abiatuz, aldian aldiko egoera eta muga politikoak gaintzea, izan gure presentziaren bitartez izan istorioen bidez.

Bi gaixo larri omen zeuden ospitaleko logela berean. Ate albokoa guztiz ezindurik zegoen, oheari atxikia; bestea, ostera, zazpi ahalak eginez gero, gutxienez leihoraino hurreratzen ahal zen. Gelakide ezinduari handik zer ikusi, horixe kontatu ohi zion: haurrak ahatei jaten ematen dabilta, elurrak abail-abail eginik utzi ditu zuhaitzak, bikote bat musuka eta eskuketan dabil... Eta ate albokoa gaixoari bihotz altxagarri gertatzen zitzaizkion deskribapen ustez hutsal haiek. Baina, egun batez, bi gaixoetan zein hilko, eta leiho alboko ohean zetzana hil baitzen, eri ezinduak leihora hurreratzen laguntzeko eskatu zuen. Eta, hurbildu da eta hara non, haurrak, zuhaitzak edo bikoteak ez, baina horma bat, horma zaharkitu eta arraildu bat besterik ez duen topatu aurrez aurre...

Aurrekoa bezalako istorioak kontatzen dizkiegu haurrei (eta irakasleei, etengabe Angel Erroren gogoeta kezkarria bainoago zirrikagarria inguruka dabilkigula: literatura, orain arte ezagutu dugun moldean, gaur egungo irakasleen belaunaldiarekin desagertuko da...), eta gonbita subliminala egiten diegu errealitatera leihotik sar daitezen, eta saiatu egiten gara hara igotzeko, aulkiaren ordeaz, liburu egokiak ipintzen, eta gonbita esplizitua egiten diegu txikitatik sortzaile izan daitezen, literatura erlatibizatu eta aldi berean bidelagun izan dezaten. Eta, hala ere, bat egiten dugu Antonio García Teijeiroekin: “Eskolaren hain menpe egongo ez den unean, ez eskolatik desagertzen denean –hori, inolaz ere ez–, eskolako hormak naturaltasunez gaintu ahal izango dituenen, orduan hitz egin ahal izango dugu literaturaren normalizazioaz”. ■